

Lepaluze belarriekin

**Maider Iantzi
Goienetxe**

Mezu bat entzuteko lau molde daudela dio Komunikazio Ez Bortitzak (KEB). Lau aulkirekin egin daiteke ariketa. Lehenbizi, aukeratu barrenean zerbait mugitu dizun esaldi bat, norbaitek erran dizuna. Ahalik eta zehatzena hobeki. Aurreneko bi aulkietan otso belarriekin jarriko zara: lehenbizikoan zure aurkako epaiak eginen dituzu, eta, bigarrenean, bertzearen kontrakoak. Egia da normalean hor gelditzen garela. Horregatik kostatzen zaigu gehiago lepaluze edo jirafa belarriak jantzi eta hirugarren aulkira pasatzea.

Mezu hori entzutean, nola sentitzen naiz? Zeren beharra dut? Saiatu galdera horiei erantzuten. Eta, lortzen baduzu, eseri laugarren aulkian eta hausnartu: «Hori erratean, nola senti daiteke bera? Zeren beharra izan dezake?». Probatzera animatzen bazara, kontuan izan beharrak norberarenak direla eta norberak ase behar dituela (behar gutti dira bertzeei lotuak, adibidez entzuna izatea edo bertzeen ongizatea).

KEBen ariketa hau partekatu nahi izan dut zuekin niretzat deskubrimendu bat izan delako eta boteretzea ekartzen ahal duela sentitzen dudalako.

Izan ere, nirea da ardura eta lau aulkien artean aukera dezaket. Gainera, lepaluze belarriekin bagabiltza, ohartuko gara norbaitek zerbait erraten digunean bere buruaz ari dela, eta, era berean, bertzea epaitzen dugunean gutaz ari garela.

Lepaluze belarriak entrenatu egin behar dira, baina merezi du. Egin dutenek diotenez, bakea ekartzen du, gauzak ikusteko eta hartzeko dugun moduaren aldaketa hagitz interesgarri bat, maite ditugunak oraindik gehiago maitatzea... Goazen bada, lepaluze, poliki-poliki... •

Eutanasia

**Xabier Mikel
Errekondo**

Maribel Telletxeak alzheimerra du eta familiak eutanasia aplikatu diezaioten eskatu du publikoki. Portugaleteko Udalak bat egin du eskariarekin, PP alderdiaren abstentzioarekin. Maribelek bezala milaka gara bizi kalitate nahikorik ezean bizi nahi ez dugula Aurretiazko Borondateen Dokumentuan jaso dugunak; nahiago hil. Bizitza aurrera ateratzeko Estatuak eskubide unibertsalak ere ez dizkit bermatzen, baina bizia bertan behera uzteko debekua ezartzen dit, hauxe paradoxa... Baina, nor da inor nire bizia soilik nirea

dela zalantzan jartzeko? Norena da bestela, Jainkoarena? Estatuarena?

Nago eutanasiaren eztabaidan, abortuarenean lez, mendeetan kontzientziantan iltzatutako erlijioaren arrastoak presente dirauela jendartearen zati handi batean. Larria da panorama gero, eta, halere, nola liteke herritarren %84 eutanasiaren alde dagoen bitartean Madrileko Kongresuan Eutanasiaren Legea geldirik edukitzea!

Sistema tranpatian korapilatuta mantentzen gaitu botereak, iritzia baldintzatu ezin digunean erabakirik har-

tzea ukatu egiten digu, osasun arloan bereziki; horra erraustegia Zubietan...

Hil nahi duena bizitzen jarraitzea behartzea, sufritzen bizitzera kondenatzea da. Nork du horretarako eskubide eta bostere ezgizatiar gizagaindikoa? Egoera gordina da eta neurriak exijitu behar dira. Arduradunak Kongresuko parlamentariak dira eta izen eta abizenak dituzte. Onar dezatela legea! Bitartean, Ramon San Pedrok hartu bidea zilegi izanen da. Nork lagundua baden bitartean gizartea osasuntsu dagoen seinale, bere kasa pentsatzen eta erabakiak hartzen dakiena. •